

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SOCIEDAD ANONIMA DEPORTIVA
AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

“Real Sociedad de Futbol, S.A.D.” sozietatearen (aurrerantzean “Sozietatea”) Administrazio Kontseiluak 2021eko azaroaren 9an hartutako erabakiaren arabera, Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia deitzen da, Viktoria Eugenia Antzokiko areto nagusian (Argentinako Errepublika, 2, 20004 Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa)), datorren 2021eko abenduaren 13an, hemeretzetan (19:00) lehen deialdian, eta, baldin badagokio, 2021eko abenduaren 14an, bigarren deialdian, ordu eta leku berdinean, akziodunek ondoren zehaztuko den gai zerrendako gaiak aztertu eta onartu ditzaten.

Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuta Covid-19ak eragindako egoera, eta akziodunen, langileen eta Batzar Nagusia prestatzen eta gauzatzen parte hartzen duten gainerako pertsonen interes orokorrak, osasun eta segurtasuna babesteko; eta kontuan hartuta COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurrien 5/2021 Errege Lege Dekretuaren, martxoaren 12koaren, amaierako zortzigarren xedapenean aurreikusitako eskumenak, Akziodunen Batzar Nagusian modua mistoan egin ahal izango da, bai bertara joanez eta presentzialki eskubideak baliatuz, Batzarra egiteko lehen paragrafoan azaldu den lekuan, bai bitarteko telematikoak erabiliz parte hartzeko eta dagozkion eskubideak baliatzeko; bitarteko horiek Batzar Nagusia egiten den lekuarekin denbora errealean konektatzea ahalbidetuko dute.

Batzar Nagusian telematikoki parte hartzeko mekanismoak Sozietatearen webgune korporatiboan 2021eko Akziodunen Batzar Nagusiari eskainitako espazioan irekiko dira (www.realsociedad.eus). Hori guztia, akziodunen informazio, asistentzia, parte hartze eta bozkatzeko eta tratatu berdintasuneko eskubideak zuzen gauzatzen direla bermatzeko.

GAI ZERRENDA

Lehena.- 2021eko ekainaren 30ean itxitako ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak aztertzea (Balantzea, Galera eta Irabazien kontua, Memoria, Ondare garbiaren aldaketan egoera orria eta Eskudiruzko fluxuen egoera orria) eta, hala badagokio, onartzea, baita ekitaldi horren kudeaketa soziala eta emaitza aplikatzeko proposamena ere.

Bigarrena.- 2021eko uztailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era arteko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontua aztertzea eta, baldin badagokio, onartzea.

Hirugarrena.- Kontu auditorea izendatzea.

Laugarrena.- Estatutu Sozialak aldatzea artikuluko berri bat sartzeko, 17.bis, estatutuetan batzar nagusia egiteko, batzar horretara joateko eta boto eskubidea bitarteko telematikoaren bidez baliatzeko ahalmena jasotzeko, 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren, uztailaren 2koaren, 182. eta 189. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Bosgarrena.- Administrazio Kontseiluari baimena ematea Batzarrean hartzen diren erabakiak interpretatu, zuzendu, osatu, gauzatu eta garatzeko, baita Batzarretik jasotzen dituen ahalmenak ordeztzeko, eta erabaki horiek tresna publikora jasotzeko ahalmenak emateko.

Seigarrena.- Galde-eskeak.

Administrazio Kontseilua Kapital Sozietateen Legearen 203. artikuluan eta Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduaren 101. artikuluan eta hurrengoetan ematen dioten eskubidez baliatu da eta, horrenbestez, akta jasoko da notarioaren esku hartzearekin. 2016ko ekainaren 15eko BORMEren erregistroko inskripzioa dela eta –252241 zenbakia–, Batzar Nagusiaren iragarpena webgune korporatiboaren bitartez egiten da.

Gai zerrendako lehen eta bigarren puntuei dagokienez, eta Kapital Sozietateen Legearen 272. artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein akziodunek eskuratu ditzake, doan eta berehala, Batzarrean aztertu eta, baldin badagokio, onartu behar diren dokumentuak, hau da, 2021eko ekainaren 30ean itxitako ekitaldiko Urteko Kontuak, eta Kudeaketa Txostena, ekitaldiari buruz Kontu Auditoreek egindako Txostena eta 2021eko uztailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era arteko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontua.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen 287. artikuluan xedatutakoaren arabera, akziodunek eskubidea dute sozietatearen egoitzan aztertzeko estatutu sozialen aldaketari buruz proposatutako testu osoa eta horri buruzko txostena, bai eta agiri horiek doan eskuratzeko edo bidaltzeko ere.

Donostia-San Sebastianen, 2021eko azaroaren 12an

Administrazio Kontseilutik,

lehendakaria, Jokin Aperribay Bedialauneta jauna

IRAGARKI OSAGARRIA REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SOCIEDAD ANONIMA DEPORTIVA-REN OHIKO AKZIODUNEN BATZARRAREN DEIALDIARI DAGOKIONEZ

Real Sociedad de Futbol, Sociedad Anonima Deportivaren Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia dela eta, zeina Sozietatearen egoitzaren helbidean deitu baita, datorren 2021eko abenduaren 13an, 19:00etan, Viktoria Eugenia Antzokiko Areto Nagusian, Argentinako Errepublika 2, PK 20004, Donostia - San Sebastian (Gipuzkoa) helbidean, lehen deialdian, eta ordu eta leku berean abenduaren 14an, bigarren deialdian, jakinarazten da Realak Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia hasieran jakinarazitako baldintzetan mantentzen duela (parte hartzea eta eskubideez baliatzea modu mistoan: presentzialki eta telematikoki), ondoren adierazten diren zehaztapenekin:

Deialdiaren iragarkia: Estatutu Sozialen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdia Sozietatearen webgunean argitaratuko da, gutxienez hori egiteko jarritako data baino hilabete lehenago, Kapital Sozietateen Legearen 176. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Deialdiaren osagarria: Gutxienez kapital sozialaren ehuneko bost ordezkaten duten akziodunek eskatu ahal izango dute Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdi honi osagarri bat argitaratzeko, gai zerrendan puntu bat edo batzuk sartuz. Eskubide horretaz baliatzeko jakinarazpen fede emailea egin beharko da, zeina sozietatearen egoitzan jaso beharko baita, deialdia argitaratu eta hurrengo bost egunen barruan.

Parte Hartze, Ordezkaritza eta Boto Txartela: Akziodunek, Batzar Nagusira joan ahal izateko, presentzialki zein telematikoki edo horretarako ordezkari delegatzeko, Parte Hartze, Ordezkaritza eta Boto Txartela eskuratuko dute Sozietatearen eskutik, posta bidez, edo Klubaren bulegoetan eskatuta, Anoeta pasealekua 1, CP 20.014, Donostia - San Sebastian (Gipuzkoa), edo akziodunak@realsociedad.eus helbide elektronikoan.

Estatutu Sozialen 17. artikuluan arabera, akziodun orok, Akziodunen Batzar Nagusia egin baino bost egun lehenago bere akzioak Sozietatearen Akzio Izendunen Erregistroan inskribatuta baditu, fisikoki edo telematikoki parte hartu ahal izango du, edo beste pertsona baten bidez ordezkatu, baita hura akzioduna ez bada ere.

Akziodunek telematikoki parte hartzea: Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, kontuan hartuta Covid-19aren pandemiari lotuta gaur egun ditugun osasun inguruabarrak, eta interes orokorrak eta akziodunen, enplegatuen eta Batzar Nagusia prestatzen eta egiten parte hartzen duten gainerako kideen osasuna eta segurtasuna babesteko asmoz, erabaki du Akziodunen Batzar Nagusian fisikoki zein bitarteko telematikoak erabiliz parte hartu ahal izango dela.

Parte hartze fisikoa tradizionalki egin izan den bezala gauzatuko da, erregistratzeari eta sartzeari dagokienez, baita akziodun gisa dituzten eskubideak baliatzeari dagokienez ere.

Batzar Nagusian telematikoki parte hartzeko mekanismoek ahalbidetuko diete akziodunei Batzar Nagusiaren emanaldia zuzenean jarraitzea, parte hartzea eta botoa ematea.

Batzar Nagusian telematikoki parte hartzeko mekanismoak Sozietatearen webgune korporatiboan 2021eko Akziodunen Batzar Nagusiari eskainitako espazioan irekiko dira (www.realsociedad.com), ondoren zehazten diren baldintzekin. Batzar Nagusian telematikoki parte hartzeko bete egingo da Legeak eta oinarritzko arauak xedatutakoa, zeinak osatu eta garatu egingo baitira Sozietatearen web korporatiboan argitaratzen direnekin (www.realsociedad.eus).

Batzar Nagusian telematikoki parte hartu ahal izateko, akziodunek aurrez eman beharko dute izena, 2021eko azaroaren 16tik aurrerago azaltzen diren data eta ordura arte. Baldintza hori ezinbestekoa

da. Dokumentu honetan azaldutakoaren arabera inprimakia aldeztetik betetzen ez duenak, akziodun gisa parte hartu eta bere eskubideak gauzatzeko, batzarra egingo den lekuan eta orduan bertaratuz baino ezin izango du parte hartu.

Akziodunen Batzar Nagusian telematikoki parte hartzeko izen ematea Sozietatearen web korporatiboan horretarako prestatutako formularioan egin ahal izango da (www.realsociedad.com); hor, Batzar Nagusian telematikoki parte hartu nahi duen akziodunak identifikazio datu hauek eman beharko ditu:

- Izen-abizenak, edo sozietatearen izena;
- NANA edo Pasaporte (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik), eta, pertsona juridikoa bada, legez ordezkatzen duen pertsonarena;
- Akziodunaren IDa;
- Posta elektronikoaren helbidea; eta
- Harremanetarako telefono zenbakia.

Telematikoki parte hartzeko izena emateko, Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.com) horretarako prestatu den formularioaren bidez, lehen deialdian egiteko data eta eguna baino lehen eman behar da (abenduak 13, 19:00), edo, bigarren deialdian bada, 2021eko abenduaren 13ko 23:59 baino lehen.

Izena behar bezala eman eta gero, eta telematikoki parte hartuko duen akziodun izaera behar bezala egiaztatuta eta gero, akziodunek Batzar Nagusia urrutetik jarraitzeko eta parte hartzeko jarraibideak jasoko dituzte.

Akziodunen Batzar Nagusira fisikoki joateak ezeztatu egiten du telematikoki egindako inskripzio oro.

Ordezkaritza: Batzar Nagusian izateko eskubidea duen akziodun orok eskubidea izango du, beste pertsona adine nagusi baten bidez, bertan ordezkatua izateko, nahiz eta pertsona hori akzioduna izan ez. Ordezkaritza hori lehen deialdian zein, baldin badagokio, bigarrenean aplikatu ahal izango da.

Akziodun ez den baina Batzarrera joateko eskubidea duen hirugarren bat beste akziodun baten, edo akziodun talde baten, ordezkaritza izendatu ahal izan dadin, eta, ondorioz, dagozkion eskubideak baliatu ahal izan ditzan (fisikoki edo telematikoki), hirugarren ordezkaritza horrek dagozkion delegazioak eduki beharko ditu, gutxienez, bost akzio edo gehiago dituen akziodun baten aldetik.

Ordezkaritza beste pertsona bati delegatzen bazaio, delegazio horrekin jarduteko modua hauetakoren bat izango da:

- (i) parte hartze, ordezkaritza eta boto txartela ordezkaritzari buruzko atalean behar bezala beteta emango zaio ordezkaritza eman zaion pertsonari;
Administrazio Kontseiluko kideengan delegatu nahi bada, parte hartze, ordezkaritza eta boto txartela behar bezala beteta entregatu beharko da Klubaren bulegoetan ordezkaritzari dagokion atalean, Anoeta pasealekua 1, PK 20014 Donostia - San Sebastian (Gipuzkoa) helbidean, astelehenetik ostiralerako bulegoko ordutegian, ordezkaritza (delegazio jaso duen pertsona) NAN edo pasaportearen kopia eman beharrik gabe; edo Sozietateari bidalita, postako korrespondentzia bidez, eransten den gutun azala erabiliz (ez da seilurik behar), Sozietateak horretarako emandako posta kutxara.
Balioa izan dezan, beharrezkoa izango da (ii) atal honetan zehaztutako edozein bitartekoren bidez emandako edo jakinarazitako ordezkaritza Sozietatean jasotzea, lehen deialdia egiteko data eta ordua baino lehen (abenduak 13, 19:00), edo, bigarren deialdian bada, 2021eko abenduaren 14ko 12:00ak baino lehen.
- (iii) Batzar Nagusiaren ekitaldira telematikoki joango den beste pertsona baten bidezko ordezkaritza idatziz emango da, edo Sozietatearen web korporatiboan emandako formulario baten bidez (www.realsociedad.eus). Horretarako, behar bezala bete beharko da Parte Hartze, Ordezkaritza eta Boto Txartelean ordezkaritzari buruz dagokion

atala, eta Sozietatean entregatu edo bidali, behar bezala inskribatzeko, bitarteko hauen bidez:

- a. Sozietateari postako korrespondentzia bidez bidaliz, erantsitako gutun azalaren bidez (ez da seilurik behar) Sozietateak emandako posta kutxara, parte hartze, ordezkaritza eta boto txartela behar bezala sinatuta eta beteta, eta ordezkariaren (norengan delegatzen den) NANaren edo pasaportearen kopiarekin; edo
- b. Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.eus) ondorio horietarako prestatutako formularioan, epearen azken eguna eta orduan izanik 2021eko abenduaren 13a 23:59an; hor, Batzar Nagusian beste pertsona batek, adinez nagusiak, ordezkatu dezan nahi duen akziodunak, izan hura Sozietateko beste akziodun bat, Administrazio Kontseiluko kide bat, edo akziodun ez den hirugarren bat, identifikazio datu hauek eman beharko ditu:
 - Delegatzen duen akziodunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena;
 - Delegazioa ematen zaion akziodunaren/Administrazio Kontseiluko kidearen (edo lehendakari kargua, dagokionean)/akziodun ez den hirugarrenaren izen-abizenak;
 - Delegatzen duen akziodunaren NANA edo Pasaporte (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik), eta, pertsona juridikoa bada, legez ordezkatzeko duen pertsonarena;
 - Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den pertsonaren NANA edo Pasaporte (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik), salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada;
 - Akziodunaren IDa;
 - Delegazioa ematen zaion akziodunaren IDa (akzioduna bada), salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada;
 - Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den hirugarren pertsonaren helbide elektronikoa, salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada; eta
 - Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den hirugarren pertsonaren harremanetarako telefonoa, salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada.

Prozesu hori behar bezala osatu eta gero, Sozietateak Batzar Nagusian urrunetik parte hartzeko jarraibideak bidaliko dizkio ordezkariari (esteka eta kredentzialak), emandako posta elektronikoko helbidera helaraziz; eta ordezkatuari baieztapen mezu bat ere bidaliko zaio.

Balioa izan dezan, Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.com) horretarako prestatu den formularioaren bidez emandako edo jakinarazitako ordezkaritza, lehen deialdian egiteko data eta eguna baino lehen jaso beharko du Sozietateak (abenduak 13, 19:00), edo, bigarren deialdian bada, 2021eko abenduaren 13ko 23:59 baino lehen.

Ordezkaritza beti baliogabetu ahal izango da. Akziodunen Batzar Nagusira fisikoki joateak edozein motatako ordezkaritza (fisikoa edo telematikoa) baliogabetzen du.

Baliogabetzea eraginkorra izan dadin, ordezkaritza modu telematikoan eman bada eta ordezkatuak, akzioen titular gisa, telematikoki parte hartuz baliogabetu nahi badu, erabaki hori Sozietateari jakinarazi beharko dio parte hartze telematikoan izena emateko aurreikusitako terminoetan. Halaber, ordezkaritza baliorik gabe geratuko da Sozietateak baldin badaki akzioak besterendu egin direla.

Batzar Nagusian zehar bozkatzea:

Batzar Nagusia egiten den lekuan fisikoki egin beharreko bozketa tradizionalki antolatutako prozesuaren arabera egingo da.

Telematikoki parte hartu eta bozkatuko duten akziodunentzat, telematikoki parte hartuko duen akziodun izaera behar bezala egiaztatu eta gero, akziodunek Batzar Nagusia urrunetik jarraitzeko eta parte hartzeko jarraibideak jasoko dituzte, baita telematikoki bozkatzeko ere.

Dokumentazio eskuragarria: Kapital Sozietateen Legearen 272.2 artikulua arabera, edozein akziodunek eskuratu ahal izango ditu Sozietatearengandik, berehala eta doan, Batzarrean onartzeko aurkeztuko diren dokumentuak, baita, hala badagokio, kudeaketa txostena eta kontu auditorearen txostena. Eskuragarritasun hori Estatutu Sozialen aldaketari buruz proposatutako testu osoari eta horri buruzko txostenari ere aplikatzen zaie, Kapital Sozietateen Legearen 287. artikulua arabera.

Jasoarazten da Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiaren inguruko aurreko agiriak Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.com) kontsultatu daitezkeela, akziodunei zuzendutako atalean.

Informazio eskubidea: Akziodunek informaziorako eskubideaz baliatu ahal izango dira, Kapital Sozietateen Legearen 197. Artikulua eta estatutu sozialen arabera. Zehazki, Batzarra egiteko aurreikusitako baino zazpi egun lehenago arte, akziodunek administratzaileei eskatu ahal izango dizkiete beharrezkotzat dituzten informazioak edo azalpenak gai zerrendako gaietara buruz, edo idatziz formulatu ahal izango dituzte egokitzen josten dituzten galderak.

Modu osagarrian, Sozietatearen web korporatiboan (www.realsociedad.com) akziodunen eskura jarri dira (1) akzioduna informazio eskubideaz baliatu ahal izateko jarraibideak; (2) Akziodunen Batzar Nagusia jarraitzen lagunduko duten prozedura edo sistemei buruzko informazioa; eta (3) Batzar Nagusian parte hartzeko sistemei buruzko informazioa, baita horretan bozkatzeko eskubideaz baliatzeko mekanismoak ere.

Galde-eskeak: Aurretiaz (akziodunak@realsociedad.eus helbide elektronikoaren bidez, lehen deialdian egiteko data eta eguna baino lehen (abenduak 13, 19:00), edo, bigarren deialdian bada, 2021eko abenduaren 13ko 23:59 baino lehen; edo modu presentzian Sozietatearen helbidean) informaziorako eskubidea modu telematikoa baliatzen duten akziodunei erantzuteko, edo Batzar Nagusia egiten ari den bitartean modu telematikoa egiten dutenei erantzuteko, erantzunak idatziz bidaliko dira.

Batzarra amaitu eta hurrengo zazpi (/) egunen barruan, Kapital Sozietateen Legearen 182. Artikulua arabera, Administrazio Kontseiluaren eskumenaren kalterik gabe planteatutako galdera batzuei lehenago erantzuteko, baita Batzarrean bertan presentzialki planteatutako zenbait gairi erantzuteko ere.

Edozein modutan, Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du alde aurretik edo modu telematikoa Batzar Orokorra editen den bitartean planteatutako galdera horietako batzuei erantzuteko, bai eta bilera horretan bertan planteatutako gaietara emandako erantzunak ere.

Notarioaren presentzia: Kapital Sozietateen Legearen 203. artikulua arabera, jakinarazten da administratzaileek erabaki dutela Notarioa batzarraren akta egitera etor dadila galdatzea.

Lege oharra: Sozietateak beretzat gordetzen du Akziodunen Batzar Nagusia aldatzeko, eteteko, ezeztatzeko edo mugatzeko eskubidea, baita bistartzeko, bertartzeko, botoa emateko, ordezkatzeko eta parte hartzeko mekanismo elektronikoak ere, hala gomendatzen edo ezartzen duten arazo teknikoak edo segurtasunekoak badaude. Sozietatea ez da izango erantzulea bere borondatearekin zerikusirik ez duten gainkargen, matxuren, lineen erorketek, konexio akatsek edo antzeko gorabeheren eragindako kalteak gertatzen badira, baldin eta bitarteko elektronikoaren bidez

bistaratzeko, bertaratzeko, ordezkatzeko, parte hartzeko eta botoa emateko sistemak aldi baterako erabiltzea eragozten badute.

Akziodunaren arreta: edozein zalantza argitzeko, zure esanetara gaituzu Klubaren bulegoetan eta akziodunak@realsociedad.eus helbidean eta 943462833 telefono zenbakian.

Batzar Nagusia egitea: Halaber, akziodun jaun-andreei jakinarazten zaie aurreikustekoa dela Batzarra bigarren deialdian egitea.

Donostia-San Sebastianen, 2021eko azaroaren 12an

Izpta.: Jokin Aperribay Bedialauneta jauna

Administrazio Kontseiluko lehendakaria